

Frontoiak eta tenis, padel eta squash pistak erabiltzeko araudia.

- 1.** Pistak edo frontoiak aurretiaz erreserbatuta baino ezin izango dira erabili, eta erreserbaren denboran bakarrik. Erreserbak kiroldegietan jarritako salmenta automatikorako makinetan egin daitezke, edo, bestela, Bilbao Kirolak erakundearen web orriaren bitartez.
- 2.** Pista edo frontoi bakoitzeko 4 pertsona sartu ahal izango dira gehienez (Bilbao Kirolak erakundeak programatutako jardueretan izan ezik).
- 3.** Bilbao Kirolak erakundeak ikastaroak, kirol programak, klubuen entrenamenduak eta kirol desberdinak bultzatu, sustatu eta garatzeko txapelketak programatuko ditu.
- 4.** Tenis eta padeleko sareen altuera eta tentsioa instalazioko langileek baino ez dituzte jarriko eta zuzenduko.
- 5.** Instalazioak ezin daitezke irabazi asmoarekin erabili, ez eta Bilbao Kirolak erakundeak arautu gabeko eskolak emateko ere.
- 6.** Kirol arropa eta oinetako egokiekin sartu behar da, eta, era berean, kirol bakoitzerako material berezia erabili behar da.
- 7.** Erraketaren Hiriko lur artifizialeko tenis pisten erabiltzaileek zenbait elementu izango dituzte pistei uniformetasuna emateko eta joko-marrak libre uzteko. Pista horien erabiltzaileek, pistak erabili baino lehen, aipatutako bitartekoak erabili beharko dituzte.